

# Work in Process

FUERA DE CAMPO

**2023**

ART HOUSE ZINEMA

Programazioa | Programación

MAR - API | MAR - ABR

BilbaoArte



**MAR 1 MAR | 19:00**
*Tokyo-Ga* (1985)
Wim Wenders | 89′

**MAR 8 MAR | 19:00**
*The Draughtsman's Contract* (1982)
Peter Greenaway | 103′

**MAR 15 MAR | 19:00**
*Level 5* (1997)
Chris Marker | 104′

**MAR 22 MAR | 19:00**
*Un baile con Fred Abstrait +*
*Una película en color* (2020)
Bruno Delgado | 58′ + Hizketaldia | Coloquio

**MAR 29 MAR | 19:00**
*20.000 Days on Earth* (2014)
Iain Forsyth + Jane Pollard | 97′

**API 12 ABR | 19:00**
*Ne Change Rien* (2009)
Pedro Costa |100′

**API 19 ABR | 19:00**
*Free Radicals* (2011)
Pip Chodorov | 82′

**API 26 ABR | 17:00**
*La Belle Noiseuse* (1991)
Jacques Rivette | 230′

# Work in Process

## FUERA DE CAMPO

BilbaoArteko Art House Zinemaren denboraldi berriko lehen zikloan, sorkuntza-prozesuari buruz hausnartzeko praktika artistikoa lantzen duten zenbait film daude.

Hautaketa honetan zortzi film daude: fikziozko lanak, ez-fikziozkoak eta erdibidean dagoen guztia, gehienetan edozein etiketei ihes egiten dietenak. Hemen proposatzen da ibilbide bat egitea sormen-prozesua osatzen duten faseetan zehar, hau da, inspiraziotik hasi eta azken obra burutu arte. Agertzen diren artistak era askotakoak dira, eta horrek mosaiko bihurtzen du ziklo hau, pintoreak, musikariak edo zinemagileak biltzen dituena.

El primero de los ciclos de la nueva temporada del Art House Zinema de BilbaoArte está compuesto por una serie de películas que abordan la práctica artística para reflexionar sobre el proceso de creación.

Esta selección incluye un total de ocho films, obras de ficción, de no ficción y todo lo que está en el medio, que escapan en su mayoría de cualquier tipo de etiquetas. Se propone aquí un recorrido por las diferentes fases que forman parte del proceso creativo, desde la inspiración hasta la ejecución de la obra final. Los artistas que aparecen son de naturaleza muy diversa, lo que hace de este ciclo un mosaico que reúne a pintores, músicos o cineastas.

*Ateak proiekzioa hasi baino 15' lehenago irekiko dira. Sarrera doan gehienezko edukiera bete arte.*

*Las puertas se abrirán 15' antes del inicio de la proyección. Entrada gratuita hasta completar aforo.*



#1

1985

DEU + FRA

96′

Digitala | Digital

JBGA | VOSE

**MAR 1 MAR**

**19:00**

# Tokyo-Ga

**WIM WENDERS**

Wim Wenders zuzendariaren film ez hain ezagun honetan, alemaniarrak 80ko hamarkadako Tokiora garamatza, hainbeste miresten duen Yasujiro Ozu zuzendariaren zinemagintza ikertzeko. Wendersek berak zinema ulertzeko eta egiteko moduari buruz gogoeta egiteko aitzakia izan da, azkenean, Japoniako errealizadorearen kolaboratzaileei egindako lokalizazioen eta elkarrizketen ibilbidea. Emaitza film mutante bat da, funtsezko bi zinemagileren unibertsora hurbiltzen gaituena.

*Wim Wendersek bidaia zirraragarri bati ekin dio Tokioko sakoneretara. Bere helburua Yasujiro Ozuren filmetan agertzen ziren lekuak filmatzea da. Kaleen, jendearen eta paisaien bidez, Ozuren espirituz betetako fotogramak jasotzen ditu Wendersek.*

En esta no tan conocida película de Wim Wenders, el director alemán nos transporta al Tokio de los 80 con el objetivo de indagar en el cine de su admirado Yasujiro Ozu. El recorrido por las localizaciones y las entrevistas a los colaboradores del realizador nipón terminan por ser una excusa para que el propio Wenders reflexione sobre su manera de entender y hacer cine. El resultado es una película mutante que nos acerca al universo de dos cineastas fundamentales.

*Wim Wenders se embarca en un apasionante viaje a las profundidades de Tokio. Su objetivo es grabar los lugares vistos en las películas de Yasujiro Ozu. A través de sus calles, sus gentes, y sus paisajes, Wenders capta con su cámara fotogramas cargados del espíritu Ozu.*



#2

1982

UK

103′

Digitala | Digital

JBGA | VOSE

**MAR 8 MAR**

**19:00**

# The Draughtsman's Contract

**PETER GREENAWAY**

Britainiar errealizadore polemikoaren fikziozko lehen filmak argi erakusten du pintore gisa duen prestakuntza. Berez, estilo-ariketa bat da, perspektibarekin eta enkoadraketarekin duen obsesioa erakusten duena. Bere umore bereziarekin, filmak intrigaz, hilketaz eta grinaz osatutako istorioa eraikitzen du, non sorkuntza ez baita ekintza eraikitzen den atzealdeko oihala soilik, film osoaren hari gidaria baizik.

La primera película de ficción del controvertido realizador británico da buena cuenta de su formación como pintor. Constituye en sí misma un ejercicio de estilo que muestra su obsesión por la perspectiva y el encuadre. Con su particular sentido del humor, el film construye una historia de intrigas, asesinatos y pasiones donde la creación no es sólo el telón de fondo sobre el que se construye la acción sino el hilo conductor de toda la película.

*1694ko udan, Neville jaunak, anbizio handiko eta etorkizun bikaineko marrazkilariak, Herbert jaunaren etxea bisitatu du, Compton Anstey-n. Anfitrioiaren emazteak etxearen hamabi marrazki eskatu dizkio, zuloa eta lorategia agertu behar direlarik. Hala ere, Neville etxe baitako intriga betean sartzen, eta adulterioaren eta beste gauza batzuen susmagarri bihurtu da.*

*En el verano de 1694, el señor Neville, un ambicioso y prometedor dibujante, visita la mansión del señor Herbert, en Compton Anstey. La mujer del anfitrión le encarga doce dibujos de la casa con el foso y los jardines. Sin embargo, Neville se verá envuelto en una intriga doméstica que lo convertirá en sospechoso de adulterio y algunas cosas más.*



#3

1997

FRA

104′

Digitala | Digital

JBGA | VOSE

**MAR 15 MAR**

**19:00**

# Level 5

**CHRIS MARKER**

INSTITUT FRANÇAIS

Fikzioa, saiakera eta zinema-egunerokoa nahasten dituen film hibridoa. Obra bakar baten sorkuntzan zenbait autoreren hotsen topaketa biltzen du. Bere senarra zenak garatutako bideo-joko bat amaitzeko agindu diote filmeko protagonistari. Azken urteotako gertakizun garrantzitsuenetariko batean sartzen du hori, Okinawako batailan, duelu pertsonal betean. Hortik aurrera, historia aldatzeko ezintasuna, ezta birtualtasunetik ere, aztertzen du filmak.

*Okinawako batailari eskainitako bideojoko baten gidoia amaitzeko agindu diote Laurari. Jolasaren helburua ez da historiaren bilakaera aldatzea, izan zen bezala erreproduzitzea baizik. Laura informatzaileen eta batailaren lekukoen sare misteriotsu batekin egingo dut topo interneten. Hala, tragediaren zenbait alderdi ezagutuko ditu, bere bizitzan eragina izango dutenak.*

Película híbrida que mezcla la ficción, el ensayo y el cine-diario y que recoge el encuentro de varias voces autorales en la creación de una sola obra. La protagonista del film recibe el encargo de terminar un videojuego desarrollado por su difunto marido. Esto la sumerge en uno de los eventos clave de la historia reciente, la batalla de Okinawa, en pleno duelo personal. A partir de esto, el film explora la imposibilidad de cambiar la historia, ni siquiera desde la virtualidad.

*Laura recibe el encargo de terminar el guión de un videojuego dedicado a la batalla de Okinawa. El objetivo del juego no consiste en modificar el curso de la historia, sino reproducirla tal y como fue. Laura se topará en internet con una misteriosa red paralela de informadores y testigos de la batalla. Así, conocerá aspectos de la tragedia que empezarán a interferir en su propia vida.*



# #4

2020
BEL + ESP
27′ + 29′
Super 8 mm
Isila | Silente

**MAR 22 MAR**
**19:00**

## Un baile con Fred Abstrait + Una película en color

**BRUNO DELGADO**

Film hauek prozedura bat dira, zinema eta hura osatzen duten elementuei buruzko gogoeta bat. Zinemagileak behaketa ariketak, formaren eta kontzeptuaren arteko elkartze joko txikiak antolatzen ditu. Zinemak gorputzarekin eta ingurunearekin duen erlazioaren bila dabil. Autorretrato kutsua du, eta beste baten gorputzean bitzearena ere, eleberriko protagonistaren edo beste leiho horretan, zineman, behatzen duen ikuslearen gorputzean.

*Xavier de Maistre-k "Voyage autour de ma chambre" (1794) eleberrian deskribatzen duen esperientziari jarraiki, filmak bere gelan filmatuta daude oso-osorik, eta kaxa (kamera) baten izaera aztertzen dute beste kaxa baten (gela) barruan. Nobelak Turinen42 eguneko etxeko atxiloketa bat kontatzen du lehen pertsonan. Pertsonaiak dio gelatik atera gabe bidaiatzeko modu bat asmatzen duela, atxiloketari iseka eginez.*

Estas películas son un procedimiento, una reflexión sobre el medio cinematográfico y los elementos que lo configuran. El cineasta articula ejercicios de observación, pequeños juegos de asociación entre forma y concepto. Busca la medida del cine en relación con el cuerpo y el entorno. Tiene algo de autorretrato y también de habitar el cuerpo de otro, del protagonista de la novela o del espectador que observa en esa otra ventana que es el cine.

*Siguiendo la experiencia que describe Xavier de Maistre en su novela "Voyage autour de ma chambre" (1794), estas películas están íntegramente filmadas en el interior del cuarto propio, explorando la condición de una caja (la cámara) dentro de otra caja (el cuarto). La novela narra en primera persona un arresto domiciliario de 42 días en Turín. El personaje dice inventar una manera de viajar desde la inmovilidad, sin salir de su cuarto, burlando así el arresto.*



#5

2014
UK
97′
Digitala | Digital
JBGA | VOSE

**MAR 29 MAR**
**19:00**

# 20.000 Days on Earth

**IAIN FORSYTH + JANE POLLARD**

Nick Cave musikariaren autoerretratu gisa planteatzen da filma eta bere egunerokotasunaren fikziotik, bere etxeko ateak irekitzen dizkigu eta bere sormen prozesuaren inguruko mamu guztiak partekatzen ditu. Rock-dokumental batetik espero denaren antitesi gisa funtzionatzen du filmak, eta maila berean erakusten ditu diziplina anitzeko artista gisa duen alderdia eta bizitza pertsonala, ariketa nartzisista bezain zintzoa den horretan.

*Drama eta errealitatea nahasten dira Nick Cave kultura-ikonoaren bizitzari buruzko fikziozko 24 ordutan zehar. Ideia harrigarriekin eta prozesu artistikoaren erretratu intimoarekin, zer garen aztertzen du filmak, eta espiritu sortzailearen botere eraldatzailea ospatzen du.*

La película se plantea como un autorretrato del músico Nick Cave que, desde la ficción de su cotidianidad, nos abre las puertas de su casa y comparte todos los fantasmas que rodean su proceso creativo. El film funciona como una antítesis de lo que se espera de un documental de rock y muestra, al mismo nivel, su faceta como artista multidisciplinar y su vida personal, en un ejercicio honesto a la par que narcisista.

*Drama y realidad se combinan en 24 horas ficticias en la vida del icono cultural Nick Cave. Con ideas sorprendentes y un íntimo retrato del proceso artístico, la película examina lo que nos hace ser lo que somos y celebra el poder transformador del espíritu creativo.*



# #6

2009
FRA
100′
Digitala | Digital
JBGA | VOSE

**API 12 ABR**
**19:00**

## Ne Change Rien

**PEDRO COSTA**

Argilunaren aldeko zaletasuna eta eszenaratze minimalista dituen filma Jeanne Balibar abeslariaren grabazio-saioetara eramango gaitu. Inprobisazioak eta errepikapenak hasiera batean zorrotza izan daitekeen erritmoa markatzen dute, baina aise konpentsatzen da artistaren prozesuan modu berri eta hipnotikoan murgiltzen zarenean.

*Jeanne Balibar aktorearen, Philippe Morel soinu-ingeniariaren eta Pedro Costa zinemagilearen arteko adiskidetasunetik sortu da filma. Dokumental honetan, Balibar kantatzen ikusiko dugu, entsegu eta grabazioetan, rock-kontzertuetan eta kantu lirikoko ikastaroetan, Sainte-Marie-aux-Mines atikoan edo Tokioko kafe baten eszenatokian.*

Con una predilección por el claroscuro y una puesta en escena minimalista, la película nos transporta a las sesiones de grabación de la cantante Jeanne Balibar. La improvisación y la repetición marcan un ritmo que, a priori, puede resultar exigente, pero se ve compensado con creces cuando te sumerges en el proceso de la artista de una manera novedosa e hipnótica.

*La película nace de la amistad entre la actriz Jeanne Balibar, el ingeniero de sonido Philippe Morel y el cineasta Pedro Costa. En este documental vemos a Balibar cantando, en ensayos y grabaciones, en conciertos de rock y cursos de canto lírico, en un ático en Sainte-Marie-aux-Mines o en el escenario de un café en Tokio.*



#7

2011
FRA
82′
Digitala | Digital
JBGA | VOSE

**API 19 ABR**
**19:00**

# Free Radicals: A History of Experimental Film

**PIP CHODOROV**

INSTITUT FRANÇAIS

Artxiboko materialez, pieza-zatiz eta elkarrizketaz osatutako collagea da filma, baina, batez ere, abangoardiako zinemarako maitasun-gutuna da. Saiakera horretan, Chodorov-ek zentroko historiaren bazterretan egin den zinemara eramango gaitu, hainbat irudi giltzarriren eskutik. Film informatiboa, ludikoa eta erabat librea.

*Zinema esperimentalaren historia, Pip Chodorov-en begirada gogotsuaz kontatua. Txikitatik ezagutu izan ditu protagonista gehienak. Chodorovek ikuslearekin film-sorta bat partekatzen du eta autoreak aurkezten ditu: Len Lye —izenburua harengandik dator—, Jonas Mekas, Robert Breer, Hans Richter, Maurice Lemaître, Peter Kubelka edo Stan Brakhage.*

La película es un collage compuesto por material de archivo, fragmentos de piezas y entrevistas pero, sobre todo, es una carta de amor al cine de vanguardia. En este ensayo, Chodorov nos acerca a un cine que ha tenido lugar en los márgenes de la historia del medio, de la mano de varias de sus figuras clave. Un film informativo, lúdico y radicalmente libre.

*La historia del cine experimental contada desde la mirada entusiasta de Pip Chodorov, que desde niño se ha codeado con la mayoría de sus protagonistas. Chodorov comparte con el espectador una serie de películas y presenta a los artistas que las han hecho: Len Lye —de quien se extrae el título—, Jonas Mekas, Robert Breer, Hans Richter, Maurice Lemaître, Peter Kubelka o Stan Brakhage.*



#8

1991

FRA

230′

Digitala | Digital

JBGA | VOSE

**API 26 ABR**

**17:00**

# La Belle Noiseuse

**JACQUES RIVETTE**

Programa hau ixten duen filmak ziklo hau egituratzen duten gai asko biltzen ditu: inspirazio artistikoaren jatorria, praktikaren garapenean izaten den frustrazioa edo belaunaldi-erreleboko tirabirak. Filmari titulua ematen dion koadroaren *in situ* sorkuntza dokumentatzen duten plano luzeekin, filma behaketa-zinemaren altxorra da, eta zinemaren eta beste arte-diziplina batzuen arteko elkarrizketaren adibiderik onenetakoa.

*Nicholas, Parisko artista gaztea, Marianne neska-lagunarekin probintzietako herri txiki batera joan da Edouard Frenhofer margolari ospetsua bisitatzera. Han bizi da, mundutik aparte. Nicholasek "Gezurti ederra" margolana dezan nahi du, neska-laguna modelotzat duela.*

La película que cierra este programa recoge muchos de los temas que vertebran este ciclo: el origen de la inspiración artística, la frustración en el desarrollo de la práctica o las fricciones en el relevo generacional. Con largos planos que documentan la creación *in situ* del cuadro que da título al film, la película es una joya del cine observacional y una de los mejores ejemplos del diálogo entre cine y otras disciplinas artísticas.

*Nicholas, un joven artista parisino, viaja con su novia Marianne a un pequeño pueblo de provincias para visitar a Edouard Frenhofer, un famoso pintor que vive allí aislado del mundo. Nicholas intenta persuadirlo para que pinte su último gran cuadro: "La bella mentirosa", con su novia como modelo.*

BILBAOARTE
Urazurrutia 32, 48003 Bilbao
bilbaoarte.org | 944 15 50 97